



ANTOLAMENDU JUDIZIALARI BURUZKO ONLINE IKASTARORAKO DEIALDIA

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak Antolamendu Judizialari buruzko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean, lan-poltsetan daudenentzat bereziki zuzenduta.

Baldintzak:

1. Ikastaroan **lehentasuna izango dute** Justizia Administrazioako Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetako lan-poltsan daudenek; zehazki, justizia administrazioan, azken bi urteetan 6 hilabeteko lan esperientziarik ez dutenek; eta aurreko lau urteetan ez dute ikastaroa osatu.
2. Automatrikula, hurrengo estekaren bitartez egingo da:
 - [Antolamendu Judiziala online izen ematea](#)

Modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.
3. **AUTOMATRIKULA:** Epea argitalpenaren egunean bertan irekiko da (**urtarrilaren 19an**) **eta otsailaren 2an itxiko da goizeko 09:00etan.**
4. Otsailaren 11n, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastaroan onartutako pertsonen, ikastaroan sartzeko jarraibideak emanez. **GARRANTZITSUA:** Posta elektronikoko erretilu guztietan begiratzea gomendatzen da, **Spam-ena barne**
5. 300 plaza eskaintzen dira. Hautatzeko, bitartekoen lan-poltsako hurrenkerak izango du lehentasuna.
6. **IKASTAROA:** **Otsailaren 11n hasiko da, 14:00etan, eta otsailaren 26an amaituko da, goizeko 09:00etan.** Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora.
7. Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta moduluak behar beste errepikatzeko aukera izango du, modulua behar den moduan ulertu eta ikasi arte.
8. Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak **ikastaroko test guztiak egin beharko ditu.**
9. **AZTERKETA (ONLINE):** **Otsailaren 27an, 14:00etan,** irekiko da azterketa online egiteko epea, **eta martxoaren 9an itxiko da, goizeko 09:00etan.**
10. Gainditu dutenek diploma jasoko dute **"Nire karpeta" -Euskadiko Sare Elektronikoa- atalean.** Gainera, lan-poltsako kideari deitu ahal izango zaio ordezkapenak egiteko.

